

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 2832

*AGINDUA, 2025eko ekainaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2023ko ekainaren 21eko Agindua bosgarren aldiz aldatzen duena. 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratzen ziren agindu horren bidez.*

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko ekainaren 10eko Ebazpenaren bidez, partzialki onartutako errekursoak betearaziz, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak betez ere, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko ekainaren 5eko Ebazpenen bosgarren aldaketa egin zen (2023ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez zuzendu ziren). Ebazpen horietan, hurrenez hurren, argitara eman ziren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek barematutako merezimenduen behin betiko puntuazioak eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuko merezimenduen guztizko puntuazioak.

Era berean, aipatutako hautaketa-prozesua arautzen duten deialdiaren oinarriak ikusita, kidego eta espezialitate bakoitzeko izangaiak merezimendu-lehiaketa bidez lortutako guztizko puntuazioen arabera ordenatu behar dira. Horrela, aukeratutako kidegoaren espezialitatean deitutako plaza guztien kopuru bera edo txikiagoa duten hautagaiak hautatuko dira.

Horrenbestez, hautatutako izangaien zerrenden antolamendua aldatzeak, kasu batzuetan, zerrenda horietan agertzen ziren pertsonen posizioa aurreratzea dakar, eta, beste kasu batzuetan, posizio hori atzeratzea. Era berean, hasieran hautatuak izan ez diren eta espezialitate horretan hautatutako azken izangaiak lortutakoa baino guztizko puntuazio handiagoa aitortu zaien pertsonak sartu behar dira.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina aldatzea. Agindu horren bidez, argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak, partzialki baietsitako errekursoak betez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak betez, aitortutako puntuazioari eta hautatutako izangaien zerrendako ordenari dagokienez, kasu hauetan:

Virginia Uranga Joaristik Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Ekonomia espezialitatean (txanda irekia) lortutako guztizko puntuazioa aldatzea. Orain, 11,8580 puntukoa izango da. Eta, horrenbestez, espezialitatean hautatutako pertsonen zerrendan duen posizioa aldatu behar da, eta Igor Alberdi Zamarreñoren aurretik jarri (11,7000). Posizio hori deialdia arautzen duten 7.1 oinarriaren 2. apartatuan ezarritako berdinketa hausteko irizpideak aplikatzearen emaitza da (izangaiak ordenatzea).

Bigarrena.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina aldatzea. Agindu horren bidez, argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak, partzialki onartutako errekurtsioak betez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak betez. Aldaketaren helburua hau da:

Miren Edurne Amuniza Achicallende izangai hautatu gisa sartzea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Matematika espezialitatean (txanda irekia, 2. hizkuntza-eskakizuna). Espezialitatean hautatutako azken izangaiak (2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina) 8,2080 puntu lortu zituen guztira; beraz, puntuazio handiagoa aitortu zaionez (9,8536 puntu), hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da.

Miren Oreja Erroz izangai hautatu gisa sartzea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Laneko Prestakuntza eta Orientabidea espezialitatean (txanda irekia, 2. hizkuntza-eskakizuna), Hezkuntzako sailburuaren Agindua betez. Espezialitatean hautatutako azken izangaiak (2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina) 9,0000 puntu lortu zituen guztira, eta, beraz, guztira 10,000 puntu aitortu zitzaizkionez, hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da. Begoña Telletxea Mutuberriaren aurretik (10,000) eta Alaitz Otaegui Eskisabelen atzetik (10,000) agertzen da. Posizio hori deialdia arautzen duten 7.1 oinarriaren 2. apartatuan ezarritako berdinketa hausteko irizpideak aplikatzearen ondoriozkoa da (izangaiak ordenatzea).

Ivan Sorrondo Salazar izangai hautatu gisa sartzea Informatika espezialitatean, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (txanda irekia, 2. hizkuntza-eskakizuna). Espezialitatean hautatutako azken izangaiak (2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina) 7,2910 puntu lortu zituen guztira; beraz, 7,6170 puntu aitortu zitzaizkionez, hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da.

Hirugarrena.– Hogeiei egun baliioduneko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautatutako Miren Edurne Amuniza Achicallende, Miren Oreja Erroz eta Ivan Sorondo Salazar izangaiak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren 8.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzaten.

Dokumentazioa online aurkeztuko da, honen bidez: <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – Tramitagune – «Administrazio-espeditentak: eskabideak, erreklamazio formalak, errekurtsioak» – Gainerako izapideak.

Agindu honen eranskinean, zinpeko aitortenaren eredia argitaratzen da, bai eta «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» eredia ere, zeina bete beharko baita, eta adierazitako helbidean ere aurkeztu.

Laugarrena.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duenak, edo dokumentazio hori aztertuta, deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidean faltsukeriak egiteagatik izan zezakeen erantzukizuna. Halaber, eskubide guztiak galduko ditu azterketa medikoan ez-gaitzat jotzen denak.

Bosgarrena.– Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 12a.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

2025eko ekainaren 24a, asteartea

## I. ERANSKINA

## EPE 2022. IRAKASLEAK. SALBUESPENEZKO PROZESUA

## HAUTATUEK AGIRIAK ENTREGATZEKO

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Especialitatea:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan. Hori dela-eta, honako agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 8 oinarria):		
<p>AURKEZTUTAKO DOKUMENTUEN ZERRENDA (Adierazi x bat jarrita zer dokumentu entregatuko dituzun).</p> <p><input type="checkbox"/> Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. (*Oharra).</p> <p><input type="checkbox"/> NAN (edo, atzeritarra bazara, dagokion dokumentua: 8.1.a) oinarria) (*Oharra).</p> <p><input type="checkbox"/> Zinpeko aitortpena edo promesa.</p> <p><input type="checkbox"/> Hizkuntza-eskakizunaren titulua edo ziurtagiria, baldin eta ez badago jasota Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan.</p> <p><input type="checkbox"/> Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulua, edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita egotea egiaztatzen duen titulua edo esperientzia-agiria.</p> <p style="text-align: center;"><input type="checkbox"/> Ziurtagiria edo master titulua PPD    <input type="checkbox"/> Titulu baliokideak    <input type="checkbox"/> Irakasle-esperientzia</p> <p><input type="checkbox"/> Ziurtagiria, epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik ez zarela zigortua izan adierazten duena. (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> Gaztelaniaz badakizula egiaztatzekeo agiria (ez baduzu Espainiako nazionalitaterik eta espainiera ez bada zure herrian hizkuntza ofiziala).</p>		
<p>(*) Oharra: DOKUMENTUA EZ BADUZU ENTREGATUKO eta kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA.</p>		
Data, tokia	Izenpetua	

Langileak Kudeatzeko zuzendariarentzat. Hezkuntza Saila.

## EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO

## ZINPEKO AITORPENA

Nik (izen-abizenak.....; NAN-zk.:.....) honako hau EGITEN DUT, honen bidez:

Zinpeko aitortpena edo promesa ez nautela inongo administrazio publikotik zigor-espeditente baten ondorioz egotzi, ez nagoela funtzio publikoak gauzatzeko ezgaituta, eta ez nagoela Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintaunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta.

.....(e)n, 2025eko.....(a)ren, .....(e)an

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek bete beharrekoa:

Nik (izen-abizenak.....; NAN-zk.:.....) honako hau ADIERAZTEN DUT, zinez:

Ez dut, .....(e)an (Estatuaren izena), Funtzio Publikora sartzea eragozten duen diziplina- edo espetxe-zigorrik.

.....(e)n, 2025eko.....(a)ren, .....(e)an

Izpta.: